



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO AZAROAREN 30EAN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/11/09.

Batzarkideek 2021eko azaroaren 9ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0328

SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20972337) ordezkartzan diharduen B&A INMOGEST SL entitateko ANGEL AINZIBURU ODRIUZOLA jaunak, San Esteban kalea 8 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 201.204,51 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 536,12 €
	Fidantza (%120): 643,34 €

Eskaera aztertu ostean, hirigintza teknikariak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2021eko azaroaren 10ean ALDEKO txostena eman du.


Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2021eko azaroaren 16an emandako 2021/974 dekretuaren bidez, SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H-20972337) administrazio-emakida esleitzea San Esteban kalea 8 etxean igogailu bat ezartzeko ezinbestean hartu



Usurbilgo Udala

beharreko jabari publikoko 16,03 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2021eko azaroaren 17an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20972337) ordezkarietan diharduen B&A INMOGEST SL entitateko ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunari, San Esteban kalea 8 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 536,12 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (643,34 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.



Usurbilgo Udala

643,34 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “Fidantza: HZ.04/2021-0199” jarriaz kontzeptuan.

- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.
- Iñigo Lizundia Uranga eta Joaquín Belío Larrinaga arkitektoek 2021eko urtarrilean (EHAE0 2021-02-16) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 16,03 m²-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Etxebizitzen handitze guneek egungo etxebizitzaren sestra mantendu beharko dute.
- Kanpo urbanizazioa eta eraikuntza barruko sestren arteko aldaketak irisgarria izan beharko du, hau da, koskarik gabea.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarritzeko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goitizterik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsaileak ezarri



Usurbilgo Udala

beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.

- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Irogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

3.- SANTUENEA 16 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0328

SANTUENEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20712063) ordezkartzen diharduen DAVID CALVILLA HIDALGO jaunak, Santuenea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 170.558,02 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 865 €
	Fidantza (%120): 1.038 €


Eskaera aztertu ostean, hirigintza teknikariak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2021eko urriaren 21ean ALDEKO txostena eman du.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2021eko azaroaren 9an emandako 2021/959 dekretuaren bidez, SANTUENEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H20712063) administrazio-emakida esleitzea Santuenea 16 etxean igogailu bat ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 4,39 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2021eko azaroaren 10ean formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Usurbilgo Udala



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: SANTUENEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20712063) ordezkarietan diharduen DAVID CALVILLA HIDALGO jaunari, Santuenea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 865 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.038 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- **1.038 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2021-0328*” jarriaz kontzeptuan.
- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal



Usurbilgo Udala

aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.

- DAVID CALVILLA HIDALGO arkitektoak 2021eko irailean (EHAE0 2021-09-10) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 4,39 m²-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Igogailuaren obra egikaritzearekin batera, **interesdunak portal parean dagoen farola lekuz aldatu beharko du**, igogailu aldera mugituko beharko du hain zuzen ere, oinezkoentzat oztopoa izan ez dadin. Proposatzen den eskuhartze hori Udaleko Zerbitzu sailarekin adostutako da. Edonola ere, farola lekuz aldatu aurretik, Udaleko brigadako elektrikariarekin hitz egin beharko da.
- Kanpo urbanizazioa eta eraikuntza barruko sesten arteko aldaketak irisgarria izan beharko du, hau da, koskarik gabea.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarritzeko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsatzaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.



Usurbilgo Udala

- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Iggogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

4.- ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 8 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI ETA EGINDAKO OBREI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0466

ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20354486) ordezkartzan diharduen JUAN KORTA ETXEBERRIA jaunak, Atxegaldeko Erdiko kalea 8 etxean igogailua ordezkatu eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko burututako obren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko otsailaren 9an, Atxegaldeko Erdiko kalea 8 etxean igogailua ordezkatu eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko obrak burutzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 28.292,46 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 28.292,46 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 107,96 €
	Fidantza (%120): 129,55 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20354486) ordezkartzan diharduen JUAN KORTA ETXEBERRIA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren eta egindako obren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Hirigintza teknikariak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2021eko azaroaren 3an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Atxegaldeko Erdiko kalea 8 etxean jarritako igogailuari eta egindako obrei lehen erabilera baimena ematea.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko martxoaren 15ean ezarritako 129,55 €-tako fidantza (IE 27-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES81 2095 5069 0010 6745 5534.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

5.- KALE NAGUSIA 15 ETXEARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0345

JOSEFA GONZALEZ CESPEDES anderearen ordezkartzan diharduen ALFONSO ENCIO MUGICA arkitektoak, barrutik eraberritutako Kale Nagusia 15 etxearen lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko ekainaren 13an, JOSEFA GONZALEZ CESPEDES andereari, Kale Nagusia 15 eraikina barrutik eraberritzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	78.458,33 €
Obra amaierako ziurtagiria:	78.458,33 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.850,40 €
	Fidantza (%120): 2.220,00 €





LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, interesatuak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraberritutako Kale Nagusia 15 etxearen lehen erabilera baimena eskatu dute. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCak eta amaiera txostena aurkeztu dira.

Horrekin batera, Kale Nagusiko 13 eraikinaren aldera baimenik gabe eraiki den aleroari dagokionez interesatuak, Nagusia 15 eta 13ko jabeen honako konpromezua aurkeztu du:



Usurbilgo Udala

<p>RESTAURACIÓN DEL EDIFICIO RESIDENCIAL NAGUSIA KALEA 15 USURBIL</p>	<p>USURBILGO UDALA BARRERA Zenbakia: 3708 Eguna: 2021/11/02 Sala: 414/07</p>
<p>El propietario de la finca situada en la calle nagusia nº15 de la localidad de Usurbil, D^o. Miguel Ángel Giraldes Gomez ,con DNI 34096131B se compromete a consensuar y adecuar de acuerdo con la comunidad vecina el acople de las dos cubiertas cuando estos realicen la renovación de su tejado. Y, se pone a disposición del contratista de dicha comunidad para subir al tejado y analizar de común acuerdo dicha solución.</p>	
<p>Se manifiesta que ante cualquier transmisión intervivos o mortiscausa que se toma el compromiso de notificar este acuerdo a los terceros adquirentes.</p>	
<p>Los vecinos de dicha finca colindante (Nagusia 13) están de acuerdo.</p>	
<p>Firman el certificado las siguientes personas:</p>	
<p>D^a Doltza Begiristain con DNI 72451346N propietaria de la finca Nagusia nº13 de Usurbil.</p>	
	
<p>D^a Maria Dolores Azpillaga con DNI 15075723M propietaria de la finca Nagusia nº 13 de Usurbil.</p>	
	
<p>D^a M^a Sagrario Goenaga Añorga con DNI 15882955Y propietaria de la finca Nagusia nº 13 de Usurbil.</p>	
	
<p>D^o Miguel Ángel Giraldes Gomez con DNI 34096131B propietario de la finca Nagusia nº15 de Usurbil.</p>	
	
<p>Para que conste donde proceda, se expide el siguiente certificado.</p>	
<p>Usurbil 2 de noviembre de 2021</p>	

Dokumentua udal aholkulari juridikoarekin, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andearerekin, aztertu ondoren, proposatutako irtenbidea ontzat ematea hobetsi da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Hirigintza Teknikariak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2021eko azaroaren 9an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emanda du honako baldintzarekin:



Usurbilgo Udala

Interesatuak idatziz aurkeztutako konpromezua bete egin beharko du bertan adierazitako kasua emango balitz, hau da, Nagusia 13ko jabekideek euren eraikinaren teilatua igo nahiko balute. Edonola ere, jabegoaren transmisiorik egongo balitz, bai intervivos edo bai mortis causa, konpromezu hori jakitera eman beharko zaio hirugarren eskuratzaileri.

Honetan emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Kale Nagusia 15 etxeari lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin:

- Interesatuak idatziz aurkeztutako konpromezua bete egin beharko du bertan adierazitako kasua emango balitz, hau da, Nagusia 13ko jabekideek euren eraikinaren teilatua igo nahiko balute. Edonola ere, jabegoaren transmisiorik egongo balitz, bai intervivos edo bai mortis causa, konpromezu hori jakitera eman beharko zaio hirugarren eskuratzaileri.
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan zuzenketa egin beharko da U-4 inprimakiaren bitartez.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2017ko uztailearen 7an ezarritako 2.220,00 €-tako fidantza (IE 29-2017) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian: ES20 3008 0259 1033 2686 0925.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaileari eta interesatuari ematea.

6.- AGINAGAKO ERRIBERAKO KALEA 12AN ESTALKIA ORDEZKATU DIOTEN APAIZETXEARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0100

AGINAGAKO SAN FRANTZISKO PARROKIAREN ordezkaritzan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunak, Aginagako Erriberako kalea 12 (Apaizetxea) etxeko estalkia ordezkatzeko obrak burutu ostean, etxearen lehen erabilera udal baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko ekainaren 25ean, Aginagako Erriberako kalea 12 (Apaizetxea) etxeko estalkia ordezkatzeko udal baimena ematea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	49.806,00 €
Obra amaierako ziurtagiria:	41.583,13 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 95 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.1.a artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 414,64 €
	Fidantza (%120): 497,56 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, AGINAGAKO SAN FRANTZISKO PARROKIAREN ordezkartzan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, etxearen lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Hirigintza Teknikariak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2021eko azaroaren 3an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Aginagako Erriberako kalea 12an estalkia ordezkatu dioten Apaizetxeari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko martxoaren 18an ezarritako 497,56 €-tako fidantza (IE 28-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzaileari honako kontu zenbakian: ES60 2095 5069 0110 7375 4946.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

7.- 2021EKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA.

Espediente zenb.: ID.06/179

IKUSIRIK

2020ko abenduaren 23an Udalbatzak onartu zituen 2021ko Lanpostuen zerrenda eta Plantilla



Usurbilgo Udala

Organikoa. 2021eko otsailaren 1ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren behin betikoz onartuta geratuz.

KONTUAN HARTURIK

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek diotena.

Estatuko 2021. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30ko 11/2020 legearen 19. artikulua.

Alkatetzaren 2005/1064 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: 2021eko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera I. Eranskin gisa doan dokumentuan azaltzen den plaza jasotzen duena.

BIGARRENGOA: 2021ko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

I. ERANSKINA

2021ko ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan ezarritakoari dagokionez, hutsik dauden plazak 2021eko otsailaren 1eko eta irailaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaraturiko 2021 urteko Lanpostuen Zerrendan agertzen direnak dira.

2021 urteko Enplegu Publikorako Eskaintzan jasotako lanpostuak honakoak dira:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Plaza kopurua	Txanda	Lanaldia
C1	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	udaltzainbura/kaboa	3 HE	1	Barne Promozioa	%100
E	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	Operario 6	1.HE	1	Barne Promozioa	%100
C1	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	Udaltzaina *	3 HE	1	Irekia	%100
A2	Administrazio Berezia	Eskala Bereziko Teknikaria	Udal Aparejadorea / Zerbitzu eta mantenu saileko burua	4 HE	1	Irekia	%100
C1	Administrazio Orokorra	Administraria	Kultura. Eusk. eta Gaztediako Administraria/itzultzailea	4TGB	1	Irekia	%100



Usurbilgo Udala

* Abenduaren 30eko 11/2020 Estatuko aurrekontu Lege Orokorreko 159. xedapen gehigarrian oinarrituta.

8.- KIROL ELKARTEEN BI URTE NATURAL HARTZEN DITUZTEN OHIKO JARDUERETARAKO 2021EKO DIRULAGUNTZEN ZURIKETA.

ESPEDIENTEEI BURUZKO DATUAK

Espedientea: 2021ko Jarduera fisiko eta Kirol Saileko Norgehiagoka Erregimeneko diru laguntzak (2021KDEE0001).

Gaia: 2021ko Usurbilgo Udalak kirol jardueri izendatutako diru-laguntzen zuriketa, bi urte naturalak hartzen dituzten jarduerentzat.

IKUSIRIK

2021ko apirilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021ko kiroletako norgehiagoka egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021ko irailaren 8an egindako bilkuran, 2021eko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, elkarte hauek hainbat ekintza antolatzeko emandako dirulaguntza justifikatu dute.

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2019-2023ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 2021 kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2021/04/07).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Jarduera fisiko eta kirol teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

Lehenengoa: 2021ko kirol egitasmoak garatzeko eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hauek onartzea.

1.Lerroa- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenetarako :

	2. zatia ordainketa
Tximeleta	1.415,86 €
Beterri Sub	137,91 €
Usurbil FT	4.501,76 €



Usurbilgo Udala

Usurbil KE	4.376,39 €
Pagazpe	1.258,66 €

4.Lerroa- Kirol elkarteenak ez diren kirol jardueretako ohiko dirulaguntza zuzenentzako:

	2. zatia
Einean Guraso Elkarte	0,00 €

Bigarrena: 2021ko kirol egitasmoak garatzeko eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako itzulketa hauek onartzea.

1.Lerroa- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenentzako:

	2. zatia itzulketa
Makax	- 202,02 €

4.Lerroa- Kirol elkarteenak ez diren kirol jardueretako ohiko dirulaguntza zuzenentzako:

	2. zatia itzulketa
San Praixku Guraso Eskola	- 93,00 €

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zerbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832
EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Hirugarrena: Gastu horiek aurrekontu-partida honen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 01 Kirol tadeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A2 -2020)

Laugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Bosgarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.